

itsosupeteko berbetie



# ITSOSUPETKO BERBETIE

## BERMEOKO ESAKERAK

*BERMEOKO UDALA*

*Erabat debekaturik dago egileen idatzizko baimenik gabe, zatika edo osorik,  
lan hau birstortzea edozein bitarteko edo prozeduraz, erreprografía eta  
trataera informatikoa barne direla.*

© Bermeoko Udalak

© Ilustrazioak, azala, diseinua  
eta testu-antolaketa: Antton Olariaga

ISBN: 84-7086-392-4

Legezko Gordailua: S.S. 1225/01

## ITSOSUPETEKO BERBETIE

**E**SKERRIK ASKO, bermeotarrok, euskereari eutsi deutsazuelako, *itsosupeteko berbetie* darabilzuelako. Halakoxea da Bermeoko berbetaea, eguneroko bizimodurako balio deusuna, gure artean berba egiteko, gure sentimenduak adierazoteko, negar eta barre egiteko, jaietan gogotsu ibilteko, maitasunerako... eta bai gauza serioetarako be, eskolan, Udaletxean...

Liburuxka honen bidez bermeotar guztion altxor preziatu dan euskereari indarra emon gura izan deutsagu, azken hilabeteetan Itsuki irratian entzun doguzan esakerakaz belarriak go-

zatu doguz, orain, barriz begien txandea da, marrazki esanguratsuak esakerakaz batera orriotara ekarrita, ahoz aho, belaunez belaun, gure betiko esakerak gu guztion ahoan ipini gura izan doguz.

XXI. mendean gure berbeteak bizirik dirau, gaur egungo munduan ibilteko aukerea emoten deusku. Eta indar osoz bizirik jarraitu daian, hona hemen hainbeste urtetan erabili izan doguzan berbak eta esakerak zuenganatzen egin dogun ahalegintxoa.

Horregaitik, bada, lotsa barik! geure euskerrea erabili daigun, geure-geureak diran berbak indartu daiguzan, betikoak eta oraingoak eskutik oratuta.

Ezin amaitu eskerrak emon barik egitasmo hau lantzen lagundu deuskuen guztiei, Jose-

ba Mikel Ugalderi, *Akatz* aldizkarian hainbeste urtetan argitaratu dituan esakerak gure esku ipini ditualako, Ana Tere Bengoetxeari, bere ahots ederra izan dogulako irratian lagun, *Itsuki* irratiko kideei, euren laguntza osoa emon dabelako, *Udaleko Euskera zerbitzuarri*, gure berbeteari indarra emoteko egin dauan ahaleginagaitik eta zelan ez, liburuxka hau landu daben Antton Olariaga, Joxean Muñoz eta Txabi Basterretxeari.

Erabili eizue liburutxua, erabili eizue gure euskerea eta Bermeon esaten dogun legez, ondo ibili, gitxi gasta eta bueltak amari.

*Juan Karlos Goienetxea Beitia*

ALKATEA

# BERMEOKO ESAKERAK

*Itsosupeteko berbetie*

**BEGIDXEK LAU (E)INDXE DAKOTAZ  
ZEU TOPATEN.**

**ZORO-ZOROKA DABIL.**



Baten bat ezin topata bagabilz, **begidxek lau (e)indxe dakotaz  
zeu topaten.**

Inor topetan zoratuta ibilteari **zoro-zoroka gabiltzez** dinotsagu.

**ARRELEPO DAROA.**

**TXIKOT FALTAUE  
DA HORI.**



Baten bat kokotean edo lepoan hartuta eroaten dogunean  
**arrelepo daroagu** dinogu.

Tonto lapikoari **txikot faltuae** dinotsagu.

**LEKO GUZTIDXETAN,  
TXAKURREK OÑOTZIK.**

**APURTU (E)INDXE  
BARREKA.**




Gauzak leku guztietan antzekoak dirala esateko, **leko guztidxetan, txakurrek oñotzik** dinogu.

Lagun artean barreka gagozanean **apurtu (e)in gara barreka** dinogu.

**OSTU-OSTUKE DABIL.**

**TXORI-TXORIKE  
DABIL.**



Ezkutatzen gabilzanean, **ostu-ostuke gabiltzez** dinogu.

Inor topetan zoratuta ibilteari **txori-txorike gabiltzez** dinotsagu.

## KALI(E)K HAUSTEN DABIL.



Egun osoan kalean dabilenari, **kali(e)k hausten dabil** dinotsagu.

**EJKO ARRAÑE DAKO.**



Eskumuturra txarto daukagunean **esko arrañegaz gauzela**  
dinogu.

**ORROTZATIK HARAKO ETZIE DAKO HORREK.**



Gauza barri-barria, erosi edo egin barria danean **orrotzatik harakue da** dinogu.

**HAMEN DATOR, KOSEPA  
KALE-KALE.**

**TRABESEKO  
PAELA !**



Egun osoan kalean dabilenari, **Kosepa kale-kale** dinotsagu.

Pertsonaren bat aldrebesekoa dala esateko, **trabeseko paela da** dinogu.

**KALIN PAN DABIL.**

**LO (E)INGO DAU  
KANTA BARIK.**



Egun osoan kalean dabilenari, **kalin pan dabil** dinotsagu.

Logureak erreta gagozanean eta oherako gogoa dauagunean,  
**lo (e)ingot kanta barik** dinogu.

**GOIDXEN ZERUE ETA BEHIEN LURRE,  
KALE GOGORRIEN DAU.**



Ezer bere ez daukagunean goidxen zerue ta behien  
lurre, kale gogorrien gauz dinogu.

Ai ! GURE ATUN  
BIRIBILTXUE.

ADURRE  
DAIDXOLA.



Ume potolotxoari, **atun biribiltxue** dinotsagu.

Ume txikiari pozik eta samurtasunez begira dagoanari **adurre daidxola dago** dinotsagu.

**MAR-MAR DABIL.**

**BERAN ALA DABIL.**



Aurrean ez dagoan norbaiten kontura berba egiten dogunean,  
**mar-mar gabiltzez** dinogu.

Baten baten kontura txarto berba egiten badogu **beran ala edo**  
**ala-ala gabiltzez** dinogu.

**AGUR, EKARRI LEPO BETE EGUR.**



Agur esateko modu berezia daukagu, **agur, ekarri lepo bete egur.**

## AMAN KOROSKERIE DAKO.

**ARREKOKOZILLO !**



Semeak edo alabak amaren edo aitaren antza daukala esateko  
**aman edo aitxen koroskerie dako** dinogu.

Baten bat kokotean edo lepoan hartuta eroaten dogunean  
**arrekokozillo** daroagu dinogu.

**GOSI(E)K URRUTUTE DAU.**



Gosez gagozanean **gosi(e)k urrutute gauz** dinogu.

Ogi zatia kazulara sartzeko **Errie batela!** esaten dabe itsasoan.

**MARIDXE BAKO BIARRA EGIN DAU HORREK  
ONTXE(K) PE !**




Ordaintzen ez diran beharrak egiten doguzanean, **maridxe bako biarrak dira** dinogu.

**ZER IKUSI, HA IKASI.**



Umeek etxean ikusten dabena ikasten dabela esateko **zer ikusi, ha ikasi** dinogu.


# URRUN DA FITX, BETIKO TA BETIKO !



Urrun da fitx, betiko ta betiko! esaten dabe umeek  
haserretzen diranean.

**EGUZKIDXE  
TXIL DAU.**

**PITXIN-PITXIEN  
JUTEN DA ....**




Eguraldi ederra dagoanean **eguzkidxe txil dau** dinogu.

Sarritan beste modu batera esateko, **pitxin-pitxien** dinogu.

**GOSIN-GOSIEGAZ  
OKERTUTE DAU.**


**UR HANDIKO LOTZIE LAKO  
BEGIDXE(K) TAKOZ.**



Gosez gagozanean **gosin-gosiegaz okertute gauz** dinogu.

Begi handi eta urtenak daukazanagaitik, **ur handiko lotzie lako begidxe(k) takoz** dinogu.

**DAKIDXENA(K) TAKI !  
TA EZ DAKIDXENA(K) BALEKI...**




**ARTZIE BAÑO ZARRAUE DA HORI.**

Oso zaharra danari, **artzie baño zarraue** dinotsagu.

**HOR DUE HORI,  
LUZE, MEHE TA  
BISTOSO.**

**UR HANDIKO  
ARRAÑE DA HORI.**



Argala eta altua danagaitik esaten dogu, **luze mehe ta bistoso**.

Pertsona harroari **ur handiko arrañe** dinotsagu.

**ARGIRE DAKO.**

**ARGIRE IMIN DXAU.**


**Ai ! JANGOIKO  
FRAKA ZABALA.**



Beste batek eraginda, liluratuta edo maiteminez begira egoteari **argire egon** dinotsagu.

Barrutik urteten dau, suspiro eta guzti, **Ai! Jangoiko fraka zabala.**

## **EGUZKIDXEK MIAU (E)INDXAU.**



Eguzkia bat-batean estaltzen danean, **eguzkidxek miau (e)indxau** dinogu.

OGOÑO BAÑO  
HANDIDXAUE DA.

GOIDXE JOTEKUE.



Pertsona oso handia danean **Ogoño baño handidxaue** dinogu.

Pertsona oso handia danean **goidxe jotekue da** dinogu.

**KAMARAKO ATIE IGIRI DAU HORREK.  
HALAKO BUFADARIK !**



Uzkerra bota dauanari, **kamarako atie igiri dau** dinotsagu .

**ABERATSA.**

**ABERATSA, POPAN HATSA,  
INFERNUKO LEBATZA.**



Lagun batek dino, aberatsa, eta besteak erantzun, **aberatsa, popan hatsa, infernuko lebatza.**

**OLES BAT (E)IN TA JUEN.**

**KIKU BAT (E)IN TA JUEN.**



Nonori bisitaldi txiki bat egiten deutsagunean, **oles bat (e)in** dinogu.

Nonora bisitaldi txiki bat egiten dogunean, **kiku bet (e)in  
dogu** dinogu.

**SARTUN-URTEA  
(E)IN TA JUEN.**

**KIKADATXU BAT  
(E)IN TA JUEN.**



Nonora bisitaldi txiki bat egiten dogunean, **sartun-urten bat** (e)in **dugu** dinogu.

Nonora bisitaldi txiki bat egiten dogunean, **kikadatxu bet** (e)in **dugu** dinogu.

**MELA MELATA DAU,  
ERLAUE ATRAPATEKO  
MODUEN.**



Busti busti eginda bagagoz gaisotzeko moduan, **mela melata, erlaue atrapateko moduen** gauzala dinogu.

**HOTZAK GOGORTUTE DAU ?**




Hotz handia egiten dauanen, **hotzak gogortute gauz** dinogu.

**SUEGAZ DABILLENA ERRETEL DA.**



Dabilenari gertatzen jakola esateko, **suegaz dabillena erreten da** dinogu.

**HONDUE JOTA DAU.**



Neka-neka eginda gagozanean **hondue jota gauz** dinogu.

Neka-neka eginda gagozanean **plaust (e)indxe gauz** dinogu.

**BIDXOTZA LO DAKO...**




Lo egin eta gero benetan itzartu barik gagozala **bidxotza lo daku** dinogu.

**BITSE LEZ, BETI GANETI(K)TAU.**




Beti azken berbea esan beharra daukanari **bitse lez, beti ganetik dau** dinogu.

## **ULIEK HEGABERI(E)LEZ DAKOZ.**



Ulcak gora begira, orraztu barik daukazanari **uliek hegaberi(e)lez dakoz** dinotsagu.

## ITSOSUPETKO BERBAK HAMEN DAUZENAK.



Izugarria, oso handia edo oso ona esateko, ITSOSUPETEKUE.

**GOSIKILTZEN DAU.**

**BUFADIRI !**



Gosez gagozanean **gosikiltzen gauz** dinogu.

Lekuren batera sartzerakoan, bero larria edo hatsa sentitzen badogu, **bufadie dator** dinogu.

**KOFRI(EK)LEZ  
JATEN DAU.**

**ITSOSOKO TXORIDXEK  
LEZ.**



Arin jaten badogu **kofrie lez jaten dau** dinogu, irentsi egiten dauan **itsosoko txoridxek legez**.

**EZ DAU EZ  
ARDAUTEKO, EZ  
URETAKO.**

**ERROZOIE DAKOZU  
BAIE KARTZELARA  
JUN BIZU.**



Ez zuri ez baltz danean gauzaren bat, **ez dau ez ardauteko, ez uretako** dinogu.

Arrazoia euki arren, zer eginik ez dagoanean, **Errozoie dakozu baie kartzelara jun bizu** dinogu.

**JANDU ERREGELEZ, BERA(K) TXARRIDXEK  
JAN BADAU GEURELEZ.**



Ondo jan eta gero dinogu, **Jandu erregelez, bera(k)  
txarridxek jan badau geurelez.**

**BARREKA ZATITXU  
(E)INDXE.**

**ITXO DA BARREKA.**



Lagun artean barreka gagozanean **barreka zatitsu (e)in gara** dinogu.

Lagun artean barreka gagozanean **itxo e(i)n gara barreka** dinogu.

**GAUIEN IBILLI,  
GOIZIEN AGIRI.**

**PARRANDIEN  
UGT.**



Parrandearen hurrengo goizean entzun beharko dogu, **gauien ibilli, goizien agiri**.

Parrandazaleari **parrandien ugt** da dinotsagu.

**HIRU KIKUMERA (E)INDXE  
OHIRE BARRURE.**

**BEHIE JOTA  
DAU !**



Logureak erreta gagozanean eta oherako gogoa daukagunean,  
**hiru kikumera (e)indxe ohire barrure guez** dinogu.

Neka-neka eginda gagozanean **behie jota gauz** dinogu.

**GAIEN PARRANDAN TA GOIZIEN LOGURE,  
EZ ZARA ZEU MAITIE OSASUNEN GURE.**



Parrandearen hurrengo goizean entzun beharko dogu, **gaien parrandan ta goizien logure, ez zara zeu maitie osasunen gure.**

AHAZTU EIN  
JAST.


ASTUE KORTAN TA  
MANDUE ETZIEN.



Lagun batek dino, **ahaztu e(i)n jast eta besteak erantzun,**  
**astue kortan ta mandue etzien.**

**MARMOKARRAÑE BAÑO  
MOLDA BAKUAUE DA.**

**GEURE  
LEPOTI(K)  
BIZI DE.**



Ezertarako trebezia ez daukanari **marmokarrañe baño molda bakuaue** dinotsagu.

Diru kontuetan nonor gure kontura dabilela esateko **geure lepotik bizi de** dinogu.

**FRANTXUN HATXETAKO ARRATOIE(K) PAÑO  
GEIDXAU DAKI HORREK.**



Pertsona azkarrari **Frantxun hatxetako arratoiek baño  
geidxau daki** dinotsagu.

**LAUMARIDXEN PUPU TA  
SEIMARIDXEN TRAPU.**




Atzamarrean min hartz eta esku osoa bendatu dogula esateko,  
**laumariidxen pupu ta seimariidxen trapu** dinogu..

**LOTU-LOTUKE DUE.**



Bidean haregaz berbetan, horri begira, sarri gelditzen  
garanean, **lotu-lotuke guez** dinogu.

**MOLDABAKO TRENTIÑE !  
ONDO IBILLI ! GITXI GASTA TA  
BUELTAK ETZERA.**




Ganorabakoari **molda bako trentiñe** dinotsagu.

Kalera urteten dogunean, **Ondo ibilli ! gitxi gasta ta bueltak etzera** dinogu.

**GELDI-GELDIKE DUE.**


**TIÑUEN-TIÑUEN.**



Astiro esateko, **geldi-geldike** guez dinogu.

Astiro esateko, **tiñuen-tiñuen** guez dinogu.

**BERANDU DATORRENANTZAT,  
AMUSKIRIK (K) PEZ.**



**Berandu datorrenantzat, amuskirik pez.** Horixe dinotsagu berandu etorri danari.

KATUEN GLORIDXEN DAU.

EGUZKIDXEK KIAU  
(E)INDXAU.



Eguzkitan epeletan gagozanean **katuen gloridxen gauz** dinogu.

Eguzkia bat-batean estaltzen danean, **eguzkidxek kiau (e)indxau** dinogu.

**GOSI(E)K BIDXORTUTE DAU.**



Gosez gagozanean **gosi(e)k bidxortute gauz** dinogu.

**HASARRATUTIEK GATX BI DAKOZ,  
HASARRATUTIE TA LAGUN (E)ITZIE.**




Baten bat hasarretzen danean dinogu, **hasarratutiek gatx bi dakoz, hasarratutie ta lagun (e)itzie.**

## HORREK LEGOIEN AZALA DAKO.



Pertsona ausartari, **legoien azala dako** dinotsagu.

**INORI EZ ATRAPA KANKAMURI(K) KERO !**



Nonork buruko garunak be harrapatuta ipinten gaituenean  
**inori ez atrapa kankamurik kero!** dinogu.

**ATXA(K) PE NEGAR (E)INGO DAUIE.**



Gauzak txarto doazenean atxak pe negar (e)ingo dauie eta benetan txarto badoaz **hasi de Ogoño negarrez ta Izaro suspiruke**.

## **ESKO-IKARIE DAKO.**



Eskuetan dardarea daukagunean **esko ikarie daku** dinogu.


Izerdi asko dariola esateko, **izerdi lamatan gauz** dinogu.

**LO SUMUSTUEN DAU.**




Gozotan egiten dan loalditxoa, erdi lo, erdi izartuta gauzela,  
**lo sumustuen gauz** dinogu.

## DAR-DART KONTZIDXOPIEN BART.



Aintzina bikoteak kontzeiopean alkarregaz egoten ziranean esaten zan **dar-dart kontzidxopien bart**.

## DARDAKADAN DAU !



Hotz handia egiten dauanean, **dardakadan gauz** dinogu.

.....

**LIBURU HAU  
2001eko AZAROAN  
INPRIMATUA DA**



Bermeoko Udala



Bizkaiko Foru  
Aldundia

Kultura Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia

Departamento de Cultura